



PRENTSA-OHARRA

Kutxabankek eta KOIk (ICO) finantzatzen dute Balenciagak akuikulturarako itsasontzi bat egitea

Bi erakundeek beren gain hartu dute 19,2 milioi euroko eragiketa, zati berdinetan

Izokin-ontzia arraina garraiatzeko eta ontzian prozesatzeko prestatuta egongo da, eta propulzio hibridoa izango du isuriak minimizatzeko

Samlaks AS Norvegiako enpresa armadorea, itsas haztegieta eta ekosistema babestuen jasangarritasunean aditua, izango da ontziaren hartzailea

2020/07/22 – PYMAR-en sartuta dagoen Balenciaga euskal ontziolak Kutxabank eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) finantzaketa lortu du, Norvegiako Samlaks armadorearentzat akuikulturarako ontzi bat egiteko. Bi erakundeek beren gain hartu dute 19,2 milioi euroko eragiketa, zati berdinetan.

Batez ere izokina garraiatzeko eta prozesatzeko ontzia da, akuikulturaren esparruan ustiatzeko pentsatua; jarduera horrek itsas ingurunearen jasangarritasuna sustatzen du, gehiegizko arrantzak ekosisteman dituen ondorio negatiboak saihestuz.

Gehienez 49,70 metroko luzera izango du, 13,20 metroko erruna eta hamabi lagunentzako lekua. Itsasontziaren propulzioa hibridoa izango da, atmosferara egiten diren emisioak minimizatzeko, eta hidrogenoa duten erregai-zelulak sartzeko prestatuta egongo da, zero emisio eta nabigazio isila lortzeko.

Azken bost urteetan, Balenciagak 10 itsasontzi entregatu dizkie nazioarteko armadore ospetsuei. Espainiako ontziola pribatu nagusiak biltzen dituen eta Balenciagarekin, kutxabankekin eta KOIrekin lankidetzan estuan aritu den PYMAR sozietatearen ustez, "bere eraikuntzen kalitateagatik eta konplexutasun teknikoagatik, ontziola hau oso ondo kokatuta dago akuikulturaren sektoreko itsasontzien merkatuan".

Samlaks AS akuikulturaren sektorean esperientzia handia duten eta balio biologiko handiko ekosistema babestuetan jarduteko politika jasangarri eta egokietara argi bideratutako enpresen integraziotik sortutako sozietatea da.

PYMAR Espainiako ontziola pribatu nagusiak biltzen dituen sozietatea da, eta Espainian zein Europa osoan ontzigintzaren interesak defendatzea du helburu. Estatuko Administrazioarekin eta autonomia-erkidegoekin lankidetzan dihardu. Sektorearen lehiakortasuna hobetzeko eta bultzatzeko funtsezko tresnak ditu, hala nola Itsas Bermeen Funtza, eta teknika, zuzenbide, finantza eta zerga arloetako aholkularitza-zerbitzuak ematen dizkie bai konpainiako ontziolei, eta bai haien eraikuntza-proiektuak gauzatzea errazten duten finantza-erakundeei.